



ikastolak



IÑIGO ARITZA IKASTOLA ALTSASU



Iñigo Aritza Ikastolako ikasle taldeetako bat, haritzen hazitegiaren aurrean.

Hariztegi proiektua

HARITZ EZKURRAK JASO, LANDATU, HAZI ETA IKASTOLA UZTEKO URTEAN BASOAN ZUHAITZA LANDATZEA DU HELBURU PROIEKTUAK

📷 Testua eta argazkia Iñigo Aritza Ikastola

Iñigo Aritza Ikastolak 2018 urteko Nafarroa Oineza antolatutua zuen, honi lotuta Basoa Oinez proiektua eratu zuen ikastolak.

Oinez Basoa proiektua, ikastolek antolatzen duten festa egunak sortzen duen aztarna ekologikoa murriztu eta Oineza antolatzen duen inguruari epe luzerako ekarpena uzteko helburuz sortu zen.

Modu horretan, iaz, proiektu honen baitan, Basomuturreko eremua garbitu, zuhaitzak landatu eta gauenara edo sagu zaharren etxetxoak jarri ziren.

Horren ostean, informazio panelak jarri ziren. Bertako testuetan Lehen Hezkuntzako (LH) 5, 6 eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) mailako ikasleek saguzarren inguruan ikasitakoak txertatu zituzten.

Proiektu honen garapenarekin, hau zerbait puntual izatetik harago, jarraitkortasuna merezi zuela ikusi zen, eta ikastola harizti baten inguruan egonda, helburu pedagogiko eta etiko-sozial sakoneko lanketa bat egiteari ekin zitzaion.

Horrela, Basoa Oinez garrantzia ikasleei irakatsi behar zitzaizela ikusi

zen, eta bide horretan, Hariztegi Proiektua jarri da martxan.

Proiektu honek aniztasunari erantzuten dio ikasle guztien garapen integralerako bidea jarraituz oinarritzko gaitasunen eta bestelako trebetasunen garapena bermatzen baitu pertsonaren eremu guztiak landuz.

Bertan, DBH ko Derrigorrezko Oinarritzko Hezkuntza (DOH) 2ko ikasleak eta LH 3ko ikasleak arituko dira elkarlanean. LH 3ko ikasleak aukeratzearen arrazoia, ikastolako mendiko erakinerako etorritako belaunaldi gazteena izatea da. Helburua, orain jasota

ko haziak, zaindu, hazi eta ikastola uztea doazen urtean, DBH 4an hain zuzen, zuhaitza basoan landatzea litzateke.

Hariztegi proiektuan, ikasle bakoitzak 4 ezkur jaso, landatu, zaindu, hazi eta denboran jarraipena egingo du. Hazi eta kimuen zaintzaren ardura DOH 2 gelako ikasleek izango dute, beraien gelan kokatuko baita hazitegia.

Proiektuaren helburuak, iraganaren ezagutza, ingurumenarekiko errespetua, naturen ziklo eta garapenaren ezagutza, zaintza ardura eta eginda-koaren lanaren bidez fruituak lortzea dira besteak beste; urtero- urtero ikasle belaunaldi berriek hazi berriak jaso eta hariztegi eder bat lortzea jomuga nagusia izanik.

IKASTOLA INKLUSIBOAREN ADIERAZLE BAT Ikastolak baditu inklusioa berezi-

ki lantzen dituen zenbait proiektu eta hauen artean DBH-ko aniztasunari erantzuteko DOH 2 gela. Gela honek programazio espezifiko du eta tailer eta proiektu desberdinak aurrera eramaten dira.

Proiektu honek DOH 2 gelako programazioarekin bat egiten du, aurrera eramaten den baratza tailerrarekin hain zuzen ere eta modu horretan, bertan lantzen diren helburu, eduki eta gaitasunekin uztartzen da. Hori honela, gela honetako ikasleek proiektu inklusibo honetan parte hartze eta paper aktiboa dute, bidelagun izanik. Horiakin batera, aipatu bezala, Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek parte hartzen dute proiektuan.

Beraz, etapan arteko elkarlana nagusi, bi gela hauetako ikasleek hazitegia eraikiko dute: DOH 2 gelako ikasleek LH 3. mailako ikasleek landatutako ezkurren hazkuntza prozesuaren ardura dute. Modu honetan, DOH2 gelako ikasle bakoitzak LH 3. mailako 4 ikasleko taldeak tutorizatuko ditu prozesu osoan zehar.

Integrazio inbertsoak programatuz, bi getan burutzen ari dira jarduerak. Dagoeneko LH 3. mailako ikasle bakoitzak 4 ezkur landatu ditu eta horiekin DOH 2 gelan kokatu den hazitegia sortu dugu. Proiektuaren lehenengo fase honetan, astero ikasle talde bakoitzak eta horien ardura-dunak potaak berrikusi eta zainduko dituzte eta prozesu horren pausu guztiak erregistratuko dira.

Inklusioa eta elkarlana oinarri, Iñigo Aritzako ikasle bakoitzak, ikastolatik ateratzen denean, zuhaitz izango den landare bat izango du eta hura basoan landatuko du, guztion harizteaz osatutako hazitegia eraikiz.

ESKUALDEKO ERAGILEEKIN BAT Proiektu hau Sakanako Mankomunitateak ikastola inguruan egingo duen hazitegian garatuko da behin hazietatik ateratako zuhaitz kimuek neurri bat hartzen dutela.

Sakanako Mankomunitateak, iraganean Albalola Fundazioarekin batera garaturiko proiektuarekin jarraitu nahi du eta iraganean basoen eraberritzea garatzeko zeuden hazitegiak berreskuratu nahi ditu.

Iraganean basoen ustiapena egiteko, hauen ziklotasunaz oso jakitun ziren bailarako biztanleak eta jasotzeko ereitea ezinbestekoa zela jakitun, hazitegi hauek eraiki eta zaintzen zituzten. Iñigo Aritza ikastolak Mankomunitatearen proiektu honekin bat egin nahi du eta ikasleei bertako iraganaren berri eman. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zein urtetako Nafarroa Oinez antolatutua zuen Altsasuko ikastolak?
2. Nola izena du zuhaitzak landatuko dituzten eremuak?
3. Zer eraikiko dute DOH 2 gelako ikasleek?

Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, telefono zenbakia, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ TXARTELA: Ane Urmeneta (Jaso Ikastola) eta Oier Salgado (Paz de Ziganda Ikastola).

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena bezela, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoritu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.